ELGOIBAR - 736. zenb. - XVIII urtea - 2010-04-16

# B
BARREN



# “10.500 emakumeri lagundu diet erditzen”

Charo Rojo, emagina


Makina Erremintaren Institutua
Instituto de Máquina Herramienta
Elgoibarko
IMH
ingeniaritza
imh
Heziketa Ziklo Industrialak
(Goi eta Erdi Maila)
Txandakako Ingeniaritza
Ate irekiak
2010 urtea
APIRILAREN 24ean
Goizeko 11:00etan
Heziketa Zikloak
eta Txandakako Ingeniaritza
IMH - Azkue auzoa, 1 - 20870 Elgoibar - Tfnoa. 943 74 41 32 imh@imh.es - www.imh.es


apirilak 23 ostirala 22:15
MONOLOGOAK
Herriko Antzokian
Elgoibar
JESUS
MAR
GONZALO
sarrerak taberman besterik ez
8,50 €
LOJANTZI
AMSTEL
MONOLOGOAK
Herriko Antzokian
Antolatzailea:
LOJANTZi

# Zatoz jolastera!

Aupa, lagunak! Kiribil naiz, eta zuekin egoteko jaitsi naiz Karakate inguruan daukadan etxetxotik. Negua gogorra izan da aurten, eta egun asko pasatu ditut kalera jaitsi gabe, baina eguzkiaren berotasuna lagun dudala, desiatzen nago zuekin jolasteko.

Jolaserako gogoa daukat, bai, baina arduratuta ere banago. Neguan guraso batek baino gehiagok deitu dit kezkatuta. Kezkatuta daude haien seme-alabek gaztelaniaz berba egiteko joera handia dutelako, euskaraz denek jakin arren. Esan diet umeek haien inguruan entzun eta ikusten dutena egiten dutela, eta Elgoibarren gaztelania nagusi bada, normala dela umeek ere gaztelaniaz berba egitea. Gainera, zergatik arduratzen edo haserretzen gara umeek gaztelaniaz egiten dutenean, gurasook eta gainontzeko helduok gure artean barra-barra gaztelaniaz badihardugu? Euskara ez da umeekin eta txakurrekin hitz egiteko hizkuntza.

Gure umeak ez dira euskaldunak izango Elgoibarko ikastetxeetan D eredua nagusi delako bakarrik. Hori ondo dago, beharrezkoa da, baina umeak euskalduntzeko euskara geletatik kanpora atera behar dugu. Euskara familietan sartu behar da; euskara koadrila eta lagunartera zabaldu behar da. Jakin, gainera, gure umeak euskalduntzeko eredurik eragingarriena F eredua dela: Familien eredua, alegia.

“Euskara jalgi hadi plazara” zioen Etxeparek, eta horregatik hasi nintzen duela zazpi urte Plaza Handira jaisten. Eta udaberrian jaisten naiz beti, umeen eta gurasoen ahotik euskara zelan loratzen den ikusi nahi dudalako. Beraz, gaur hasi eta ekainaren 18ra arte, ostiralero Plaza Handian egongo naiz euskaraz gozatu nahi duzuen ume, guraso eta familia guztien zain.

Kiribil



**“Gaur hasi eta ekainaren 18ra arte, ostiralero Plaza Handian egongo naiz euskaraz gozatu nahi duzuenon zain”**

“Nire txanda” atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

Egin zaitez gure lagun Facebook-en



Egin klik eta ikusiko duzu

www.elgoiBARREN.net

ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA



# CHARO ROJO

**EMAGINA**

## “Gaur egun emakume batek nahi duelako eta nahi duenean izaten ditu umeak”

**Orain dela hiru urte hartu zuen erretiroa Charo Rojok, 33 urtez Elgoibarko Osasun Zentroan emagin lanetan jardun ondoren. Burgosen jaio zen orain dela 68 urte. Santanderren egin zituen Osasun Laguntzaile Teknikari ikasketak hiru urtez, eta ondoren, Madrilen egin zuen emagin espezialitatea. Bukatzean, medikuntza ikasten hasi zen, baina dirua irabazten hasteko ordua zela pentsatu zuen. Bilboko Maternitatean hasi zen lanean, 3.500 pezetako soldatarekin. Ondoren, Burgosera itzuli zen, eta bertako ospitalean egin zuen lan, bederatzi urtez. Ezkondu zenean iritsi zen Elgoibarrera.**

Orain dela hiru urte hartu zenuen erretiroa. Nola gogoratzen duzu zure lanbidea?

Polita izan da. Baziren dena pikutara bidaltzeko gogoa izaten nuen egunak ere, baina, oro har, pozik egin dut lan.

Ume askorentzat bizitzan ikusi duten lehenengo aurpegia izango da zurea.

Bai. Anbulategi zaharrean hasi nintzen lanean, Merkatu Plaza aldamenean. 10.500 emakume baino gehiagori lagundu diet erditzen. Emozioz beteriko uneak izaten dira, baina une gogorrak ere bizi izan ditut. Zorionez, gauzak asko aldatu dira, baina oraindik gehiago aldatu behar direla iruditzen zait.

Denborak aurrera egin duen heinean, nola aldatu da emaginen lana?

Izugarri aldatu da. Lehen ez geneukan aparaturik ere! Emakume batek bikiak espero bazituen, erditzean bertan jakiten genuen. Ez geneukan umea ondo zetorren ala ez jakiteko aukerarik ere. Ipurdiz ala buruz zetorren jakiteko eskua sartzen nuen, eta aurpegiz bazetorren, umeak atzamarra xurgatzen zidan. Horrela jakiten genuen. Postura guztietan hartu izan ditut umeak. Gaur egungo erditzeak askoz errazagoak dira. Ni hasi nintzenean, medikurik ere ez genuen izaten as-

kotan. Emaginak bakar-bakarrik egiten zuen guztia. Burgosen lan egin nuen denboran, egun batzuetan 24 orduz aritzen nintzen lanean segidan. Garai hartan, emakumeek zortzi edo hamar ume edukitzea ohikoa zen, eta eguneko 25 ingreso egotea ez zen harritzekoa. Egun batean 18 amari lagundu nien umea izaten. Umeak nahasteko arriskua handia izaten zen horrelakoetan.

**Gaur egun ere oraindik nahasten dituzte umeak batzuetan. Tokatu al zaizu horrelako kasurik?**

Niri ez, baina nire ikaskide batzuei gertatu zitzaien. Madrilen izan zen, Santa Cristina ikastetxean. Bi ume aldatu zituztela konturatu ziren, eta Ama Nagusiari esan zioten zer gertatu zen. Gurasoei kontatzeko eskatu zioten, bestela ezingo zirela lasai bizi, baina ama nagusiak isilik egoteko agindu zien, bestela eskolatik kaleratuko zituztela esanez. Isilik geratu ziren, ikasketak amaitzear geundelako. Nik ez dakit zer egingo nukeen, baina seguruenik ez nintzateke isilduko.

**“Ama izatea ederra da. Edozein emakumeri gomendatuko nioke ama izatea”**

**Erditzeak emozioz beteriko uneak direla aipatu duzu, baina une txarrak ere bizi izango zenituen, ezta?**

Bai, noski! Garai hartan ume asko izaten ziren, eta familiek ez zuten izaten denak aurrera ateratzeko aukera handirik. Zazpigarren umeaz erditzean, adibidez, amak ez zuen inolako ilusiorik izaten. Arazoetan eta umeari jaten nola emango zioten pentsatzen zuten ama askok erditzen ari zirela. Burgosen lanean nengoela, alaba pila bat zituen familia etorri zen ospitalera. Semea nahi zuten, baina hurrengoa ere neska jaio zen. Ume hark ez zeukan errurik, baina gurasoek ez zuten begien bistan ikusterik nahi!. Hilda jaio ziren umeen kasuak ere ezagutu ditut, baina une horiek gogoratzea ez zait gustatzen. Gauzak asko aldatu dira, eta gaur egun, emakume batek nahi duelako eta nahi duenean izaten ditu umeak. Haurdunaldian zehar, gainera, umeari buruzko informazio asko jasotzen dute gurasoek.

**Gizonaren papera ere asko aldatu da haurdunaldietan.**

Bai. Nire senarrari ere esan zioten nahi bazuen erditze gelan sartzeko, baina ez zen ausartu. Gizon asko zorabiatzen dira emaztea sufritzen ikustean. Minez dagoela ikusi eta, gainera, lagundu ezin izatea gogorra egiten zaie.

**Abortuari buruz, zer iritzi daukazu?**

Ni abortuaren kontra nago, baina emakume askori lagundu izan diet: beharrezko informazioa eman, telefonoak, abortuak egiten dituzten ospitaleen helbideak... Emakume bakoitzaren egoera zein den ikusita, kasu batzuetan abortua ulertzekoa da. Zenbait kasutan ezin dira umeak mundura ekarri. Down sindromea duen ume bat edo enanismoa duen bat ez izatea ondo ikusten dut. Bere eta ingurukoen sufrimendua sahiesteko hobe da abortatzea.

**Horretarako, baina, jakin egin behar da umea nola datorren. Amiozentesia egitearen aldekoa zara?**

Bai. Arriskutsua da, umekiaren poltsa ziztatzen dutelako, baina gauza asko jakiten dira proba horrekin. Garrantzitsua da.

**Haurdun dauden emakumeak, nola joaten dira emaginaren kontsultara?**

Kezkatuta, eta duda askorekin. Normala da. Ezagutzen ez duten esperientzia baten aurrean daude, eta galdera pila bat izaten dituzte. Bikotearekin hitz egitea oso garrantzitsua da. Gomendioak ematen nizkien, eta gehienek, zehatz-mehatz jarraitzen zituzten nire aholkuak.

**Ama ere izan zara. Haurdunaldiaren bi aurpegiak ezagutu dituzu. Nola bizi izan zenuen amatasuna?**

Ni haurdun geratu nintzenean hemen ez zegoen ekografiak egiteko aukerarik, eta Burgosera joan nintzen. Aparailu handi bat zen, eta umekia ondo ala gaizki zegoen bakarrik esaten zizuten. Jaio zenean jakin nuen mutikoa zela. Haurdunaldi gogorrak izan ditut. Lehenengo haurdunaldian sei hilabetez egon nintzen ohean, eta umea galtzekotan egon nintzen. Eskerrak galdu ez nuela. Bigarrena izan nuenerako hemen makina gehiago zeuden, baina Burgosen izan nuen hura ere. Mutikoa izatea nahi nuen, anaia nagusiarekin jolasteko, eta halaxe izan zen. Justu-justu iritsi nintzen ospitalera orduan. Ia autoan jaio zen! Nire garaian ez zegoen epiduralik, baina aukera izango banu, dudarik gabe, epiduralaren aldeko aukera egingo nuke.

**“Abortuaren kontra nago, baina kasu batzuetan ulertzekoa da”**

**Amama ere bazara. Zer da politagoa, ama ala amama izatea?**

Desberdina da. Biloba Palentzian bizi da, eta ez dut asko ikusten. Semeak jaio zirenean izaugarri poztu nintzen. Bi seme ditut, eta ama izatea izugarria da, benetan. Edozein emakumeri gomendatzen diot ama izatea.

**Ainhoa Andonegi**



*Charo Rojo, Burgoseko ospitalean.*

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: *barren@elgoibarkoizarra.com*.

**“Eskolara noa oinez”**

Primerakoa da eskolara oinez joatea sustatzeko ekimena, baina ez da ba izango “oinez” beharrean “hegazkinez”, ala? Jakina, oso polita da “oinez” esatea, ingurua ondo egokituta dagoenean, baina… nondik pasako dira gure seme-alabak?

Errepidez? Izan ere, Urasandiko espaloi guztietan autoak daude aparkatuta, eta ez bat, eta ez bi. Espaloi guztiak daude autoz josita. Orduan, nondik joan behar dute? Errepidetik? Hori ere ezin da, ordea, zebrabideak apenas ikusten direlako Urasandiko igoeran, eta oinezkoentzako pasabide alturik ez dagoenez, autoak izugarrizko abiaduran ibiltzen direlako gora eta behera, zoroen pare. Egun hauetakoren batean ezbeharren bat gertatuko da, eta orduan alferrik izango da eskuak burura eramatea.

Ikastolara joateko, ordea, ez dago halako arazorik. Haurrek inolako arriskurik ez izateko prestatuta dago dena (oinezkoentzako pasabide altuak, piboteak espaloietan, eta oinezkoentzako pasabide bakoitzean udaltzain bat puntako orduetan —sarrera eta irteera orduetan–, umeei laguntzeko). Jakina, horrela joan daiteke oinez eskolara, edo gutxienez lasaigo joan daiteke, arriskurik gabe. Baina gure kasuan, horrenbeste oztopo daudenean, burutik ere ez zaizu pasatzen oinez joatea.

Esan beharra dago, hala ere, Urasandiko goiko aldeko etxeetako ume asko oinez joaten direla eskolara, zati batzuetan espaloitik eta ezin denean, errepidez. Kontuz, baina, parking-a baino 20 metro aurretik dagoen zebrabidearekin!. Ez dadila zoro bat etorri eta norbait azpian hartu. Izan ere, hain etortzen dira astiro eta kontrolatzen… egunen batean norbaitek negar egin beharko duela!.

Jakinaren gainean egon zaitezten.

**Lucia Molina Marin**

**Sotua ez ikutu!!!**

Azken aldixan bolo-bolo dabil Kultur Etxian jarri nahi deben igogailuaren kontua. Argi dago oraiñ arte, ezintasunen bat duten lagunak baztertuta egon dirala eta ez debela hango eskaintzaz gozatzerik izan, baiña hori ez da pasatzen Sotuan eitten diran ekintzekin.

Jakiña da bi proiektu daudela, bata barrutik eta bestia kanpotik eitteko. Nik ez dakitt zein dan onena edo eta merkiena (beste alor batzuetan moduan asko aurreratu baita igogailuen mundua, eta eskaintza zabala egongo da barrurako zein kanporako), baiña ikusle, parte hartzaille eta antolatzaille lanetan ibili ondoren, badakitt sotua izorratu ezkero, herri honetan kultur adierazpen askorentzako txoko berezi bat galduko degula.

Beraz, eskaera hau udal agintarientzako: ez daizuela zuen aurretiko udalbatza gehixenek egin zittuen akatsak errepikatu. Akats handia izan zen Kultur Etxiaren berritze lanak egin ziranian ezintasunak dittuzten pertsonak kontuan ez hartzia. Estetikoki zelan geldittuko den kontuan hartzia ere ez legoke gaizki, nahiz eta jakiñ herri honetan berdin diola alde zaharrik gabe gelditzia (etxe zaharrak botatzen dira, eta berriak egiñ, eta ia danetan lehen kanpotik zeben itxura errespetatu gabe). Madalako gaztetxia eta Madalako ezenatoki aurreko karpa haura (orainguak ere badauka zer hobetua) zubiko ikusmena murrizten zabela aitzaki hartuta bota zittuen, eta jakiña, egiñ eta desegiñ horrek herriari galera ekonomikoak sortzen dioz.

Bukatzeko, Sotoko erabiltzaile danei, norbanako eta kultur eragilleei, honen aurrian euren iritzixa emateko deixa luzatu nahi diuet.

**Nestor Fuente**

**Sos Praileaitz**

Industria sailaren aurrean Kultura sailak koba babesteko neurririk ez zuen hartu. Zorionez, Praileaitz babesteko Kosta Legea dago. Lege horrek marea sartzen den lekuraino babesten ditu Deba ibaiaren magalak, tartean Praileaitz. Hala ere, Zeleta enpresaren makinek legeari barre egin eta albo hori jaten ari dira martxoaz geroztik. Jarritako salaketek berriz ere azken eraso hori geldiaraztea lortu dute, baina legearen gainetik daudela usten duten horiek interes maltzurragoak dituzte. Berriz sartzen direnean, beranduegi izan baino lehenago mugitu beharko gara. Beraz, kultura interesatzen zaion edonori deitzen diogu egingo diren mobilizazioetan parte hartzera. Adi mobilizazioei. Webgune honetan duzue informazio eguneratua: *http://amigosdepraileaitz.wordpress.com/*.

**Sos Praileaitz Elgoibar**

**Barren**

**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 744 112
Faxa: ☎ 943 743 704
E-posta: *barren@elgoibarkoizarra.com*
Publizitatea: ☎ 943 743 704
E-posta: *barren.publi@elgoibarkoizarra.com*

Argitaratzailea: ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA

ZUZENDARIA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Eneritz Lazkano, Izaro Etxegibel MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Oihana Tarragual, Anjel Bazterretxea, Ane Odria, Maialen Olazabal, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Abel Irizar, Alberto Agirreazaldegi, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Juanito Gorostiza, Jairo Berbel. INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.760 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855





Angel Bazterretxea

Joan den asteko BARRENen aspaldiko argazki bat azaldu zen. Argazki hartan, abade gazte bat ageri zen, sotana eta guzti. Irudi hura ikustean hainbat oroitzapen etorri zitzaizkidan burura. Lehenengo eta behin, berrogeita sei urte pasatu direla, eta, gero, hainbat gertakari igaro direla ordutik, gure bizitzan eragin handia izan duten gertakariak. Urteak pasatzea normal-normala da, baina urte horiek hainbat aldaketa sakon dakartenean eragin handia izaten dute inguruan. Ez da berdina sotana jantzita ibiltzea edo kaleko jantziekin ibiltzea, gainerako herritarren moduan. Hori, hasteko. Eta ez da berdina orain ikusten ditugun hainbat bizitzeko forma. Ez da berdina elizak bete-beteta ikustea edo erdi hutsik ikustea. Ez da berdina zapatu gau batean 1:00etan itzultzea etxera edo gaupasa galanta eginda etxeratzea. Ez da berdina betirako konpromisoa izango dela pentsatuz ezkontzea. Ez da berdina diktadura batean bizitzea edota nolabaiteko demokrazian bizitzea, perfektoa izan ezta ere.

**“Gure gaurko irizpideak al dira zuzenenak gure bizitzak biderik egokiena hartzeko?”**

Eta aurrera jotzen badugu, beste hainbat aldaketa nabarituko ditugu gure inguruan. Aldaketa guzti horiek eta beste gehiagok gure pentsatzeko era astintzen dute. Askotan dudan jartzen gaituzte. Ez dakigu zer den egoera ona, non dagoen egia, zer egin beharko genukeen momentu askotan. Sasoi batean gure guraso, maisu, abade eta abarrek esaten zigutena onartu beharra zegoen. Gaur hori ez da horrela. Gaur, geure ustetan, aske sentitzen gara geure bizimodua geure erara bizitzeko, besteen inposaketa gabe. Hori ederra litzateke benetan, gure iritziak beti zuzenak balira. Baina gure gaurko irizpideak al dira zuzenenak gure bizitzak biderik egokiena hartzeko?



Oihana Tarragual

Garai ezberdinak, Don Angel. Zuk biak bizi izan dituzu; nik, berriz, oraingoa bakarrik. Bizitza da maisu/maistrarik onena, eta ni ez naiz inor biderik egokienetik joateko zein irizpide jarraitu behar diren esateko.

BARRENeko aurreko asteko erretratu zaharra ikustean gauza askok harritu ninduen: jantziek, txuri-beltzeko argazkien nostalgia horrek, sotana beltzez jantzitako apaizak (*portzierto,* elegantea gero!...) eta, batez ere, erdian itsulapiko apurtzen ari den mutikoak. Garagartzako plazan Mendaroko gaztetxoak jolasean eta dibertitzen.

**“Bizitza da maisu/maistrarik onena; ni ez naiz nor zein irizpide hartu behar diren esateko”**

Gaur egun, zenbat ume izaten dira Garagartzako plazan jolasten? Eta, jolasten al dute elkarrekin? Umeak etxean *play station*-ean jolasten ikustera ohitu gara; baita sakelako telefonotik elkarri deika ikusten, edota MP3ak nonahi ikusten ere.

Nolakoa izango ote da hemendik 46 urtera ateratako argazki bat? Honela imajinatzen dut nik: hasteko, eliza dagoen moduan egonda, apaiza dagoeneko ez litzateke argazkian azalduko. Jendearen arropa argiz josita ikusten dut, eta ileak, kolore guztietakoak. Eta gaztetxoak ziber horietako batean ikusten ditut, ordenagailu aurrean jolasten, elkarrekin hitz egin gabe.

Bizitzak daraman abiadura ikusita, atzean geratzeko arriskua dugu. Hala, nire bilobekin jolastu nahi badut behintzat, bi aukera ditut: bat, lehengo ohitura zaharretatik ikasi edo mundu elektronikoan murgildu. Ni sutondoan bilobei ipuinak kontatzearekin konformatzen naiz.

Elgoibarko Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

DANOBAT

kutxa

GOITI
GRUPO DANOBAT



# joanmaritorrealdai

**Auzitegi Nazionalak absolbitu egin ditu *Egunkaria auziko* sumario nagusian auzipetutako bost lagunak, tartean Joan Mari Torrealdai bera. Guardia Zibilak *Euskaldunon Egunkaria* itxi eta zazpi urte geroago etorri da absoluzioa. Hala ere, beste ahalegin bat eskatu dute, auziaren bigarren zatia epaiketa zain dagoelako.**

**Ainara Argoitia**

## "Nire eskerrik zintzoena Elgoibar eta Mendaroko euskaltzaleei"





**Ezin da esan Espainiako Auzitegi Nazionala justiziaren tenplu bat denik, baina, behingoz, justizia egin da, zazpi urteren ostean bada ere. Poza, amorrua... Zer sentitzen duzue?**
Sekulako poza. Zazpi urte hauetan behin eta berriz errepikatu duguna oso-osoan berretsi du epaimahaiak, eta pozgarria da, bai. Onartu du *Egunkaria* autonomoa zela eta ez zegoela inoren aginduetara, eta ezta ezeren menpe ere. Ez ETAren zerbitzura eta ezta alderdien menpe ere. Epaia bera, gainera, oso mamitsua da. Uste dut, gainera, jurisprudentzia ezar dezakeela, eta horren abiapuntuan gu egotea handia da.

**Epaia espero zenutela esan duzue. Benebenetan orain. Espero zenuten?**
Bai, bai. Epaiketa nola joan den ikusita, espero genuen. Epaiketan zehar izan dugun sentsazioa da hitz egiten uzten zigutela eta entzun egiten zigutela. Sinistu egiten zigutela. Eta nik uste hori argi agertzen dela sententzian bertan ere. Han geundela eta handik irten berritan, erabat konbentzituta geunden absoluzioa etorriko zela. Gertatzen dena da Auzitegi Nazionala zer den ondo dakigula denok ere, eta handik edozer espero daitekeela beti; kalterako, jakina. Bestetik, epaiketa bukatu zenean, epaia hamabost eguneko epean jakinaraziko zutela esan ziguten, eta bi hilabete eta hamar egun iragan direnez, susmo txarrak hartuta geunden. Ez dut ukatuko, urduri geunden. Auzitegitik kanpora presioak izan daitezkeela jakina da, eta beldurra izatea normala. Absoluzioan sinisten genuen, baina bezperatik esatera ausartu ez, badakizu.

**Justiziak, absoluzioaz gainera, erreparazioa exijitzen duela esan izan duzue. Nork erreparatuko dio zuen zazpi urteko sufrikarioari?**
Nahi duzu egia esatea? Inork ez, eta Estatuak gutxiago. Gure jendearen eta geure herriaren babesa eta elkartasuna da guk daukagun errekonozimendu edo erreparazio bakarra. Ez dezagun espero horrelako ezer, ez dirutan eta ez bestela. Politikariei ahoa erraz berotzen zaie, eta hor ari dira denak barkamena eskatu beharko liguketela eta kalte-ordainak exijitu behar direla esanez. Ahaztu hori.

**Absoluzioak, baina, ez al du kalte-ordainak exijitzeko aukerarik ematen? Ez al da orain horretarako ordua?**
Ez dago aukerarik. Horretarako ordua beti izan da, nire etxean sartu eta seme-alaben aurrean umiliatu ninduten une beretik. Alferrik da, ordea. Estatua Estatua da, eta ez dago aukerarik. Epaia idatzita dagoen moduan, gainera, ez du uzten horretarako zirrikiturik.

**Estatuaren kontrako epaiketa batean enpresaren jabeak eta akziodunak akusazio parti-**

**kular gisa aurkeztuta ere ez? Ezta herritarrok herri akusazio gisa aurkeztuta ere?**

Ez nonbait. Hori abokatuek esan beharko digute xehetasun gehiagorekin, baina oraingoz jakinarazi digutena hori da. Noiz ikusi dugu Estatua barkamen eske? Uste duzu gurekin gertatuko dela? Gertatzen dena da barruak eskatzen dizula hori eskatzea. Zazpi urte eta bi hilabete egon gara, eta orain gaizki abiatutako prozesua dela esanez datoz. Gustura esango nieke: 'Enpresa bat itxi duzue, eta ondasun guztiak likidarazi, eta orain hau? Edozer egin dezakezue zigorgabetasun osoz?' Esango dugu eta eskatuko dugu, jakina, barruak hala eskatzen digulako, baina jakinda, beti ere, horrek praktikan ez daukala bide luzerik. Moralki egin diguten kaltean insistitu behar dugu, hori bai. Estatuak bermeak jarri behar ditu hurrengo batean beste halako kasurik gertatu ez dadin. Horretarako balio behar du honek.

**Dignidad y Justiziak bereari eusten dio. Atzera egin ezean, Estatuak kalte-ordain handiak ordaindu beharko dituela kargu hartu dio epaimahaiari.**

Hori ez da oraingoa. Epaiketak iraun zuen denboran ere beldurra sortzen aritu dira, iritzi publikoarengan eta Estatuko aparatuengan eragin nahian. 'Krisi denboran nola da posible horrenbesteko dirutza ematea terrorista batzuei?' Hala ari dira.

**"Kalte-ordaina eskatuko dugu, barruak eskatzen digulako, baina jakinda, praktikan, horrek ez daukala bide luzerik"**

**Amaieraren hasieran gaudela nabarmendu duzue. Zer dator edo zer etor daiteke orain?**

Helegiteak etorriko direla ia ziurra da. Auzitegi Gorenera joko dute epai hau atzera bota dezaten eskatuz, baina teknikoen arabera, oso zaila izango da epai hau baliogabetzea, itxuraz, oso ondo egindako ebazpena delako. Auzitegi Gorenak Auzitegi Nazionalaren epaia berretsiko balu, hor amaituko litzateke kontu hau, eta bestela, kontrako epaia emango balu, Konstituzionalera jotzea izango genuke. Astelehenean jakingo dugu Dignidad y Justiziak edo AVTk helegitea jarriko duten edo ez.

**Defentsa ezin dela jaitsi ere ohartarazi duzue. Erne egon behar dela, besteak beste, auzi ekonomikoa ere hor dagoelako.**

Bai. Paradoxikoa ematen du, gainera, baina zigor eskaera handienak hortxe daude. Zortzi lagun gaude, eta 26na urteko zigorra eta 33na milioi euroko isuna eskatu dute hor gaudenetako batzuentzako.

**Auzitegi Nazionalari inhibitzeko eskatuko diozue. Lehen ere eskatu zenioten, baina ezetza jaso zenuten. Orain aukera gehiago ikusten duzue?**

Bai. Oraintsu arte, auzia instrukzio fasean egon denean, eska zitekeen auzia Tolosara ekartzeko, berez ustezko irregulartasunak bakarrik leporatzen dizkigutelako bigarren auzi horretan. Baina bi auziak lotu egin zituzten, eta lehenengoan terrorismoarekin lotzen gintuztenez, biak eraman zituzten Madrilera. Orain, Madrilen, Zigor Auzitegian sartuta dagoenez, Auzitegi Nazionalari eska diezaiokeguna da Gipuzkoako Auzitegiko Zigor Salari uztea auzia. Fiskalak berak auzi ekonomikoaren gainean egindako txostenean oinarrituko gara horretarako. Batetik, argi esaten du terroristek egiten duten guztiak ez duela derrigor ekintza terrorista izan. Jo dezagun, eurek esaten duten moduan, Iñaki Uria, Txema Auzmendi eta ni neu terroristak garela. Bada, orduan ere justifikatu egin beharko lukete egin dugun oro ETAren mesedetan egin dugula. Baina are gehiago esaten du fiskalak. Bigarren auzi horretan auzipetuta dauden beste bostak ez dituztela terrorismoarekin lotzen. Ustezko irregulartasunak bakarrik agertzen dira hor, eta horregatik, fiskalak zera galdetzen du: 'Nolatan dago auzi hori Auzitegi Nazionalean? Auzitegi Nazionala ez da nor hori epaitzeko'. Beraz, behin sumario nagusian auzipetutakook ETArekin loturarik ez dugula frogatu denean, errazago ikusten dugu auzia hona ekartzea.

**Ustezko irregulartasunak leporatzen dizkizuete, baina Ogasunak aspaldi esan zuen ez zegoela deliturik. Zeri heltzen diote orduan?**

BEZarekin eta diru laguntzekin iruzur egitea egozten digute. Gipuzkoako Ogasunak behin eta berriz esan du ez dagoela deliturik, eta fiskalak erretiratu egin du salaketa. Diru laguntzen kasuan leporatzen diguтена zera da: saltzen genuena baino gehiago deklaratzen genuela, diru laguntza handiagoak lortzeko, gero diru hori ETAri emateko. Eta argi utzi dezagun, eginahalak eginda ere, ez dutela frogatu ETAri dirua ematen genionik. Eta? Non dago orduan delitua? Katalunian, saltzen dituzten ale kopuruaren araberako diru laguntzak jasotzen dituzte, baina hemen, ez. Hemen, hamar, hamabost edo hogei ale saldu, diru kopuru bera jasoko duzu, hitzartutakoa. Zergatik gauden horrela oraindik? Bere garaian, instrukzio fasean, Jaurlaritzak egin gabe zeukalako txosten hori, eta orain, instrukzio fasea amaituta, ezin duelako aurkeztu Madrilek eskatu ezean. Eta jakina, ez dio eskatuko, deliturik ez dagoela esana daukalako.

**Torturen harira epaiak dio inkomunikazio aldian ez zela kontrol judizial nahikorik izan. Lerro artean esan badute ere, sinistu dizuetela ematen du. Eta orain?**

Jurisprudentzia aldetik indar handia izan dezake. Oso pauso ausarta eman dute, epaile instruktorea, Guardia Zibila, herri akusazioa... jo dituztelako. Ikusi egin beharko da, hala ere, helegitea baldin badago, Auzitegi Gorenak hori berresten duen edo zer. Ziur naiz goi mailetan kontsulta bat baino gehiago egongo direla, hau pasatzen utzi edo ez erabakitzeko. Baina guk ez daukagu horren gaineko informaziorik, eta okerrago dena, ez dugu hor eragiteko aukerarik. Nahiko nuke guretzako baliagarria izango den modu berean beste batzuentzako ere baliagarria izatea.

**Lehenengo garaipen bat izan dau hau. Injustiziaren gurpila gelditzeko euskal herritarren indarra funtsezkoa izan dela esan duzue. Elgoibarren eta Mendaron ere jende ugari mobilizatu da. Zer esango zenieke?**

Nire eskerrik zintzoena adierazi nahiko nieke Elgoibarko eta Mendaroko euskaltzale guztiei. Eskerrik asko, bihotz-bihotzez. Gustatuko litzaidake banan-banan denei bostekoa ematea, eurei esker bizi garelako gu. Hilaren 25erako festa moduko bat antolatu dugu Bilbon, Euskaldunan, eskerrak emateko. Ezingo ditugu lagundu diguten guztiak hartu, baina momentuan ez dugu leku hoberik topatu. Festa mundiala gero etorriko da, hau dena behingoz amaitzen denean.

**Zazpi urteren ondoren, Espainiako Auzitegi Nazionalak absolbitu egin ditu ‘Egunkaria auziko’ sumario nagusian auzipetutako bost lagunak.**

# Nola hartu duzu ‘Egunkaria’-ren inguruko epaia?



**Igor Mugertza**
**42 urte, makinako langilea**

Sekulako poza hartu dut. Espero nuen auzipetuak absolbitzea, baina albiste ona izan da. Zazpi urte pasatu dira *Egunkaria* itxi zutenetik, eta nik uste dut kalte-ordainak exijitu behar direla, auzipetuek sufritu duten guztiagatik. Dirutan edo beste edonola, baina zerbait behar da.



**Mikel Cornejo**
**38 urte, langabetua**

Poztu egin nau albisteak. Azkenaldian ez dut asko jarraitu gai hau, baina absolbitu egin zituztela entzun nuenean poztu egin nintzen, kasu honetan kultura ere jo dutelako. Iruditzen zait gauzak asko ari direla nahasten, bereziki hemen Euskal Herrian.



**Montse Arregi**
**43 urte, itzultzailea**

Alde batetik, poza eta lasaitua, eta bestetik, amorrua, injustizia baten aurrean gaudelako. Azkeneko unera arte kezkatuta egon naiz, eta oraindik kezka puntu bat badaukat, ez pentsa!. Helegitea jarri dezakete, eta epaia behin-betikoa izan arte ez naiz guztiz lasaituko.



**Manu Sanchez**
**49 urte, pilotua**

Poza hartu dut, poz handia. Herri honetan justiziarik baldin bazegoen behintzat ezin zen beste gauzarik espero. Bidegabekeria handia izan zen. Tristea da, baina, zazpi urte behar izana auzi hau argitzeko. Horixe da penagarriena, justizia horren motela izatea.



**Txakur kakak jasotzen ez dituzten jabeei isuna jarri behar zaie:** “Beste herri batzuetan hasi dira txakur kakak jasotzen ez dituztenei isunak jartzen, eta Elgoibarren ere hasi beharko lukete. Basarte inguruа txakur kakaz beteta egoten da. San Roke auzoko jende askok dauka txakurrekin Basarte edo Mintxeta aldera joateko ohitura, eta dena kakaz beteta lagatzen dute. Eta hori ez da txakurraren errua, jabearena baizik. Nire ustez, jabe horiek isuna merezi dute”.






**Erretxindiko zubiko barandak berritu dituzte:** “Bazen garaia! Luzaroan egon gara zain, baina azkenean berritu dituzte Erretxindiko zubiko barandak. Hala ere, ez dira herrigunean jarri dituzten bezalako baranda dotoreak. Auzo horretako bizilagunok ere ordaintzen ditugu zergak, baina badirudi ez dugula erdigunekoek beste merezi. Hala ere, eskerrik asko gure kexari erantzuna emateagatik. Orain farola berriak jartzea bakarrik falta da. Ingurune hori oso iluna da, eta argiztapena hobetu beharra dago”.

Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
*barren@elgoibarkoizarra.com* / 943-74 41 12

Lanbroa




Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 6etatik aurrera.
Larunbat eta jaiegunetan goizeko 8etatik aurrera.

Pedro Muguruza, 5 • Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

Ileapaindegia • Estetika • Solarium-a

Idama



Martxoko irabazlea:
FELISA IRANZO

Apirileko saria:
PLANTXA TXIKIAK ESPRAI BABESGARRIAREKIN

Antonio Arrillaga, 6-8 behea (sarrera Santa Ana kaletik)
Tel.: 943 74 40 26

# Auto istripu larria gertatu zen joan zen eguenean Elgoibarren, eta 16 eta 20 urte bitarteko lau gazte hil ziren

## Auto berean zihoazen lau gazteak, eta furgoneta bat jo zuten aurrez aurre



Errepide istripu larria gertatu zen joan zen eguenean, Elgoibarren, N-634 errepidean. 20:30ak aldera, Volkswagen Golf auto batek eta Wolkswagen Transporter furgoneta batek aurrez aurre jo zuten, eta kolpearen ondorioz, autoa erabat txikituta geratu zen. Lau gazteak –laurak eibartarrak– auto barruan harrapatuta gelditu ziren, eta suhiltzaileek atera behar izan zituzten. Ertzaintzak errepidea itxi eta A-8 autobidetik bideratu zuen trafikoa.

Osasun eta larrialdi zerbitzuak berehala joan ziren ezbeharra izan zen lekura, baina orduko gazteetako bat, 17 urteko neska, hilda zegoen. Beste hirurak Mendaroko, Donostiako eta Gasteizko ospitaleetara eraman zituzten, oso larri. Gauerdi inguruan hil zen gidaria, 20 urteko mutila. Autoan zihoazen beste bi neskak, 16 urtekoak biak ere, biharamonean hil ziren. Furgonetan, bestalde, 38 urteko emakumezko bat, 32 urteko gizonezko bat eta 2 urteko haur bat zihoazen –eibartarrak denak–, eta Arrasateko (Gipuzkoa) erietxera eraman zituzten, zaurituta. Ezbeharraren ondorioz, Eibarko Udalak dolu egunera deitu zuen barixakurako, eta Euskal Herriko Itzulian minutu bateko isilunea gorde zuten.

## Elgoibarko Lanbide Heziketako eskaintza ezagutzera emateko azoka egingo dute bihar, Kultur Etxeko sotoan



Elgoibarren dagoen prestakuntza eskaintza ezagutarazteko ekitaldia izango da bihar, Kultur Etxeko sotoan, Udalak, IMHk eta Mekak antolatuta. Alfredo Etxeberria alkateak, Joxean Egaña IMHko zuzendariak eta Axun Larrañaga Mekako zuzendariak aurkeztu zuten ekitaldia. 11:00etan hasiko dira jardunaldiak, eta 13:15era arte iraungo dute. Hitzaldiak izango dira, eta zikloei buruzko zein txandakako ingeniaritzari buruzko informazio mahaiak jarriko dituzte.

Elgoibarko Udalak 2007-2011 Legegintzaldi Planean definitu zituen helburuen artean jaso zuen bertako prestakuntza-eskaintza sustatu eta ezagutzera emateko beharra, eta era horretan, Elgoibar Lanbide Heziketaren eta Ingeniaritzaren eredu bilakatzea. Testuinguru horren barnean antolatu dute biharko ekitaldia.

Elgoibarrek Lanbide Heziketari dagokionean daukan aukera zabala azpimarratu dute antolatzaileek. Meka institutuak eta IMHk hamalau ziklo ezberdin eskaintzen dituzte (zortzi goi mailakoak eta sei maila ertainekoak). Gainera, IMHn Txandakako Ingeniaritza ikasteko aukera ere badago.

Biharko jardunaldiaz gain, ate irekien egunak ere antolatu dituzte bi ikastetxeek. Apirilaren 22an Meka bisitatzeko aukera izango da 8:00etatik 20:00etara, eta hilaren 24an, berriz, IMHko ate irekien eguna egingo dute, goizez.

## Izenak Naiara Martin eta Iñaki Garate



Iñaki Garate zarauztarra izango da Gazte Informazio Guneko (GIG) teknikari berria. Naiara Martin, bestalde, Elgoibarko Izarran hasiko da lanean, Atxutxiamaikako koordinatzaile postuan. Gazteen intereseko informazioa landuko du Iñakik, eta herritarren eskura jarriko du: oposaketak, bidaiak, lan eskaintzak... GIG bulegoaren ordutegia: astelehen, eguazten eta barixakuetan 11:00etatik 13:00etara, eta arratsaldero 16:00etatik 19:00etara.

## Irudia San Antolingo lokal berria

Domekan inauguratu zuten San Antolingo lokal berria. 85.000 euroko inbertsioa egin dute Udalak (%60) eta Gipuzkoako Foru Aldundiak (%40), eta 80 metro koadroko lokala prestatu dute. Besteak beste, Alfredo Etxeberria alkateak, Arantxa Eizagirre Debemeneko lehendakariak eta Benantzio Otaegi Elgoibarko parrokoak parte hartu zuten ekitaldian. Parrokoaren bedeinkazioa jaso ondoren, agintariek hartu zuten hitza, eta, ondoren, Haritz dantza taldeko Mikel Olaizolak ohorezko aurreskua dantzatu zuen. Gregorio Larrañaga *Mañukorta* eta Aitzol Urainen bertso saioak, eta Bitoriano Loiola *Ospas* eta Janire Elordi mendaroarren eta Olatz Aranguren eta Eider Iriondo auzotarren trikiti doinuek girotu zuten bazkalostea. 39 bazkide dauzka elkarte berriak, eta Iñaki Izagirre izango da estreinako presidentea.

Bestalde, Idotorbe-San Pedron egiten diharduten elkarteko lanak ere azken txanpan sartuta daude, eta hil bukaerarako amaituta egongo direla uste du Elgoibarko Udalak.



### Bi herritar atxilotu dituzte, droga trafikoarekin zerikusia dutelakoan

Ustez droga trafikatzen aritzen zen talde bat desegin du Ertzaintzak. Lau lagun atxilotu dituzte, eta horietako bi elgoibartarrak dira. Atxilotuei 1.175 gramo kokaina, kilo erditik gora speed, 13.800 euro eta droga manipulatzeko erabiltzen dituzten beste hainbat erreminta atzeman dizkiete. Droga horren balioa 130.000 eurokoa da dirutan. Debabarrenean droga trafikoan aritzen zen talde “nagusia” dela nabarmendu du Ertzaintzak.

### Ostegunetako merkadilloa erdigunera ekarriko dute

Maiatzean Leku Eder eta Plaza Txiki ingurunera ekarriko dute ostegunetako merkadilloa. 21 salmenta postu izango dira. Inprentara bidali aurretxoan jasotako berria izan da hau, eta hurrengo alean emango dugu zabalago. *www.elgoibarren.net* atarian daukazue informazio guztia.

### Festa feminista, gaztetxean

Elgoibarko Emakumeen Asanbladak antolatuta, festa feminista izango da bihar, gaztetxean. 20:30ean hasita, musika, antzerkia, monologoak eta poesia emanaldiak izango dira, besteak beste. Afaltzeko patata frijituak, entsalada eta krepeak salduko dituzte. Sorpresak egongo direla iragarri dute antolatzaileek.



# GURPIL ARTEAN

**Bizikleta artean dabiltza aspaldian Iñigo Lazkano eta Enekoitz Lazarobaster mendaroarrak. Balentziagaren Oroimenezko Lasterketan eta Euskal Herriko Itzulian ere halaxe ibili dira, batetik bestera, txirrindulari profesionalez inguratuta. Bizikleta gainetik antolatzaileen tropelera salto egin berria da Iñigo, duela bi urte eta erdi arte Orbean ibili zelako, Euskaltelen harrobiko taldean. Enekoitzek, berriz, aspaldi esegi zuen bizikleta, baina hamar urtetik gora daramatza lasterketa barruan, dela motorrean edo dela autoan. Euskal Herriko Itzuliko bosgarren etapa hasi aurretxoan bildu ginen haiekin, Eibarren, txirrindulariak Oriora abiatu aurretik.**

**Ainara Argoitia**


*Iñigo Lazkano eta Enekoitz Lazarobaster, Amets Txurrukarekin.*

Barixakua da, hilaren 9a, eta giro berezia dago Eibarren. Euskal Herriko Itzuliko bosgarren etapa bertatik abiatuko da Oriorantz, eta Untzaga plaza hartuta dute txirrindulariek eta haien segizioak, kazetari, argazkilari eta gainerakoek. Euskal Herriko Itzulia iristen den eguna handia izan ohi da Eibarren, baina Elgoibarren izandako auto istripu larriak lausotu du aurten. Eibarko lau gazte hil dira, eta goibel esnatu da herria. Irteeran, minutu bateko isilunea gordetzea hitzartu dute Itzuliko antolatzaileek. Batetik bestera dabiltza, akreditazio txartela lepotik zintzilik dutela, pauso bizian. Hantxe topatu ditugu Iñigo Lazkano eta Enekoitz Lazarobaster ere, lasaiago, itxura batean.

Eskarmentu handia dute txirrindularitza munduan. Ume-umetan hasi ziren bizikletan, eta gertutik bizi dituzte hemen inguruko lasterketa eta itzuliak. 18 urte bete berritan sartu zen Enekoitz Euskal Bizikletako antolatzaileen taldean. “Gidatzeko karneta atera berri nuen, eta aitak eramaten ninduen artean”, dio. Errepide bazterreko lana zen berea: kartelak jarri eta kendu, bidegurutzeak zaindu, mendate gainetan egon... Gerora, Mavic-eko autoak iritsi zirenean, mekaniko jardun zuen Euskal Bizikleta batean. “Sekulako esperientzia izan zen. Lehenengoz, barru-barrutik jarraitu nuen lasterketa”, nabarmendu du. Ordutik, motorrean ibili da, arbelarekin lehenengo, eta lasterketa barruko trafikoa zuzentzen azkeneko urteetan. Batari kargu hartu, besteari azkartzeko agindu, aurretik doana baztertuarazi, atzetik datorrenari bidea eman... “Denekin haserre. Lasterketa barruan ibiltzen ere jakin egin behar da. Bihurguneetan txirrindulariek nondik joko duten aurrez jakin behar da, jaitsieretan bereziki, eta horretarako ez da nahikoa txirrindularitza kanpotik jarraitzea. Oso azkar jaisten dira, gu motorrean baino azkarrago sarri, eta estuasunak ere izaten ditugu. Garondoan beharko genuke guk begi bat, aurrea eta atzea ikusi ahal izateko”, dio barrez. Motorrean hasi zenetik gidari berarekin ibili da beti, eta hitz egin gabe ere ulertzen direla dio, harro. Tropel barrutik segitzen du itzulia, baina sarri errepide bazterrean daudenek edo itzulia telebista bidez jarraitzen dutenek baino gutxiago ikusten due-

> **Zuzenean edo zeharka, 300 lagun baino gehiagok parte hartzen dute etapa bat antolatzen**

la dio: “Ihes egindakoekin joaten gara sarri, baina zeintzuk diren ere ez zara jabetzen askotan, ingurukoak zaindu beharraren zaindu beharraz”.

Iñigo Lazkano, berriz, iaz sartu zen antolatzaileen taldean, bizikleta utzi ostean, eta orduan lagun izan zituenak podiumera eramaten dihardu orain. Onenen ondoan. “Kanpotik askok pentsa dezakete luxu bat dela hau, eta bada neurri batean, baina ez da beti erraza izaten. Telebistak indar handia du, eta podiumeko lana bizkor egin behar izaten da, babesleek dirua ordaintzen dutelako telebistan zuzenean agertzeko, eta txirrindulariek, aldiz, ez dutelako presarik izaten. Lehertuta amaitzen dute, eta nahikoa lan izaten dute bueltta ematen”, dio. Etapa amaitu aurretik hasten da lanean. Ihesaldian sartu direnen masajistengana joan eta podiumerako behar dituela jakinarazten die, lana bizkortzeko. Abantaila bat badu: gehienak ezagutzen dituela, eta askok bera ere ezagutzen dutela.

Euskal Herriko Itzulian, baina, badu pena bat. Amets Txurrukari mendiko maillota jantzi ezin izana. “Vianako etapan ihes eginda ibili zen, eta mendiko puntu batzuk ere batu zituen. Mendiko irabazleari maillota janzten ari zirela, podium inguruan ikusi nuen eta halaxe esan nion: ‘Hori dek hiretzako moduko maillot polita, neurri-neurrikoa. Neuk jantziko diat hori, bihar edo etzi”. Laugarren etapan jantzi zioten, Arrateko etapan. “Helmugan sartu zenean hurbildu zitzaidan, eta ‘akordatu nauk hirekin’ bota zidan. Soinekoaren pare zuen, baina jantzi genion”. Elkarrizketa egin zenean, segurutzat jotzen zuen Iñigok Amets gailenduko zela mendian, baina Aiako etapan jausi eta lepauztaia apurtu zuen. Ez zuen itzulia bukatzerik izan.

## Euskal Bizikletaren azkena

Euskal Bizikletak eta Euskal Herriko Itzuliak bat egin zuten urtean hasi zen Iñigo, urte zailean. “Gogorra izan zen bat egitea, tristea”, dio Enekoitzek. UCI ProTour liga sortu eta Euskal Bizikleta egutegi horretatik kanpo geratu zenean sortu zen bateratzearen beharra –Euskal Herriak ProTour ligan itzuli bakarra nahikoa zuela erabaki zuen bere garaian UCI Nazioarteko Txirrindularitzaren Batasunak–. Kirol arloan eta arlo ekonomikoan gainbehera argian zihoan Euskal Bizikleta, eta derrigorrean batu egin behar izan ziren. «Bigarren mailan geratuta, UCIk asko estutu gintuen. Kirol arloan arazoak geneuzkan taldeak erakartzeko, eta gure euskarri nagusiak ere, EITBk, Euskal Herriko Itzuliarekin bat egitera behartu gintuen, bi itzuliak ezin zituela bere gain hartu argituta», azaldu du Enekoitzek. Antolakuntza biek bat egin, eta batek antolatzen ditu orain Euskal Herriko Itzulia eta Donostiako Klasikoa, UCI ProTour ligako bi lasterketak.

Euskal Bizikleta “itzuli handia” zela dio Enekoitzek, etsipen keinu batez, eta baietz dio Iñigok buruarekin. “Izen handiko txirrindulariak etortzen ziren, Girotik zuzenean, eta sekulako abiadura ekartzen zuten. Txirrindularitzaren urte onak joan dira, baina. Orain, Euskal Herriko Itzulia antolatzeko ere lanak izaten dira, pentsa!”, dio Enekoitzek.

Orduan eta orain, urte guztiko lana izaten dute itzulia antolatzeko. Astean bi aldiz batzen dira: martitzenetan, Eibarko Klub Ziklistaren egoitzan –Balentziagaren Omenezko Lasterketa eta jubenilen lasterketa antolatzen ditu– eta, eguenetan, Euskal Bizikletak zuen egoitzan –Euskal Herriko Itzulia antolatzen dute–. “Familia bat osatzen dugu, eta horri esker egiten dugu aurrera, denok ondo uztartu ezean jai dagoelako hemen. Gero bakoitzak bere egitekoa du”, azaldu du Iñigok. Etapako, 300 lagun baino gehiago ibiltzen dira antolakuntzan. Zuzendari teknikoak diseinatzen ditu etapak, baina haren lanean jarrita, argi dute zein etapa ez luketen inoiz kenduko: “Arratekoa”.

Elkarrizketa bukatu aurretik, Euskal Herriko Itzuliko podiuma osatzeko eskatu genien, eta osatu zuten, di-da batean. Horner, Valverde eta Gessink erantzun zuen Iñigok, eta Valverde, Horner eta Beñat Intxausti, Enekoitzek. Bien artean bada ere, asmatu zuten [Chris Horner, Alejandro Valverde eta Beñat Intxausti izan ziren lehenengo hirurak]. Nolanahi ere, kiniela ez da beti bihotzarekin egindakoa izaten. “Sekula ez”, dio Enekoitzek. “Nahi, nahi... etxekoek irabaztea nahiko nuke. Gertukoek”, erantzun du Iñigok. Enekoitzek ere badu nere gustukoa: “Amets”



*Enekoitz eta Iñigo, mendiko maillota janzten duten neskekin.*



# Amaittu da, amaittu da, amaittu da, akabo!

Irakurle leial hori:

Bost urte luze pasiak dira *Gure berbak* atal honetan idazten hasi nitzala.

Barren aldizkarixak hala eskatuta, Elgoibarko hizkeran idatzittako testu batzuk argitaratzen hasi nitzan, bai eta Elgoibarko hizkera horren ezaugarrixak aztertzen ere; ezaugarri hórrek arloz arlo aztertzen jardun dot harrezkero: hasieran, esaerak, esapide berezixak, ahozko jardunaren ezaugarrixak jaso nittuan; ondoren, sintaxi-egiturak, esaldi mendekuen adibidiak; gero, izenaren eta aditzaren inguruko jakingarrixak, deklinabidia, postposiziuak, aditz-formak zein diran, aditzen erabillera berezixak…; fonetikiak eta fonologixiak ere euki dau bere txokotxua, herriko jendiarentzat zaillagua gertatu arren. Azkenik, amaitzeko, hiztegixa, arlorik zabalena eta emankorrena; azken atal horretan, Elgoibarko berba bereizgarrixak erakusten ahalegindu naiz: ezin, ba, hiztegi osua erakutsi (zer da, gaiñera, hiztegi osua? Hitz egiñ leike horrela hiztegixaren gaiñian?).

Zuetako batzuk geratu nauzue kalian, Barreneko zutabia hizpide hartuta: “pozik irakurtzen dot”, “interesgarrixa beittentzen jata”, “ez dot piperrik ere entenditzen” (gaztiagoren batek), “lehenguan idatzittako horrekin ez nago ados”… Ni beti pozik, halako egoera bat suertatzen zanian: jendiak irakurtzen daban seiñale, betiere.

Eskerrak eman nahi dizudaz zuri, irakurle, zuk eman diozu-eta nere lanari zentzua, esanahixa; eskerrak Elgoibarko Izarrari ere, pentsatutako guztia kaleratzeko aukeria eta erreztasunak ematiagatik.

Oraiñ, atsedentxo bat hartzeko ordua allegau jata; uste dot merezi dodala deskantsu bat, bost urtian astero-astero zutabia idazten jardun eta gero, batzuetan ondo egon ezta ere bai. Amaittu jataz, oraingoz, esatekuak; uste dot nahiko ondo geratu dirala aztertuta Elgoibarko hizkeriaren ezaugarri nagusixak, okerrak oker.

Pozik egin dot oraiñ arteko lana. Oiñ, esan bezela, amaittu da aldi hau; etorriko dira bixar-etzi aldi desberdiñak, kolaborazio diferentiak, hobiak biharbada. Bihar dalakuan nago, Elgoibarko euskeriari eta haren ezaugarrixeri eutsi nahi izatekotan. Ni horretan nago; zuetako asko ere bai; Barren aldizkarixa eta Elgoibarko Izarra ere bai; baitta euskaltegixak eta eskolak ere, iritzi partikularrak iritzi partikular.

Hor geratu dira Barrenen idatzittako guztiak; hor dago *Elgoibarko euskara* liburua, 2007 urtian Elgoibarko Udalaren eta Elgoibarko Izarraren eskutik argittaratu nabana; *Elgoibarko aditz-taulak* ere bai, 2006 urtian Badihardugu-ren laguntzarekin kaleratu nabana; Elgoibarko hizkeriaren azterketa sakonago bat ere egin dot oraindik oraiñ, unibertsitaterako, eta espero dot berandu baiño lehen argittaratuko dala (adittuentzako egokixagua da, baiña edozeiñek eskura eukitzeko moduan egongo da laster).

Azkenian, pixka bat kostatu bada ere, alor hau landu eta gero, uzta txiki bat batu ahal izan dot, herrixari eskeintzeko, euskeriari eskeintzeko. Uzta hori batzia, baiña, ez da nahikua: uzta hori zabaldu egin bihar da, erabili, sozializatu… Eta horrekin nago kezkatuta: kapaz izango gera eskoletan, euskaltegixetan, bihar deben gaztien artian hori zabaltzeko? Izan ere, etxe batzuetan egitten da lan hori, belaunaldiz belaunaldiko transmisio hori; baiña ez danetan: etxe batzuetan, gurasuak kanpokuak dira, euskaldunak baiña beste herriren batekuak; beste batzuetan, euskaldunak baiña euskera batua baizik erabiltzen ez debenak; beste zenbaitt kasutan, euskaldunak ere ez dira; kasu hórretan, eskolak, euskaltegixak eta bestelako transmisio-bidiak (aisialdi-taldiak eta abarrek) badauke zer esana.

Oraiñ, nahi neuke batutako uzta hori, egindako lan hónek liburutegixetako apalategixetan hautsa hartzen geratuko ez balira, herriko, kaleko, auzuetako haize freskua hartuko balebe…

Jesus Mari Makazaga

*Martxoan...*

## JAIOTAKOAK



Andde Elizburu Azpiazu
Martxoak 2
Ion eta Bidatz



Kekoa eta Eidur Arrizabalaga Aranberri Martxoak 3
Eneko eta Eguzkiñe



Harriet Kanalaetxebarria Zabala Martxoak 20
Unai eta Ana



Markel Barrutia Zaldibar
Martxoak 11
Igor eta Katarina



Ilargi Galeano Vela
Martxoak 13
Javier eta Edurne



Jose Antonio Alonso Bilbatua Martxoak 23
Jose Antonio eta Sarai



Junes Agirregomezkorta Aboititz Martxoak 4
Gorka eta Naiara



Nahia Olivares Dominguez Martxoak 12
Jose Manuel eta Nagore



Peru Astigarraga Carcedo Martxoak 4
Imanol eta Patricia



Oier Cid Benallas
Martxoak 23
Jose Antonio eta Sonia

Irati De Nova Vila
Martxoak 5
Miguel Angel eta Elvira

Andoni eta Paula Miguelez Perez Martxoak 4
Antonio eta Maria Angeles

Safae Mansour
Martxoak 13
Aokkacha eta Malika

Martin Zabala De La Cruz Martxoak 11
Julen eta Anahi

Alai Romero Rubio
Martxoak 14
Martin eta Argiñe

Rodrigo Oliveira Alves
Martxoak 15
Joao eta Ana

Paule Agirrebeña Juaristi
Martxoak 19
Ernesto eta Miren Ainhoa

Asmae Zaimi
Martxoak 27
El Hassane eta Rachida

Leire Exposito Galeano
Martxoak 31 Manuel eta Maria Angeles

Elsa Barrenetxea Arenas
Martxoak 31
Iñigo eta Lorea

## HILDAKOAK

Jose Mari Regil • 83 urte • Martxoak 1
Antonio Fernandez • 94 urte • Martxoak 2
Carmen Sanchez • 82 urte • Martxoak 4
Maria Garate • 87 urte • Martxoak 4
Joaquin Uranga • 80 urte • Martxoak 5
Pedro Egia • 79 urte • Martxoak 7
Justina Etxebarria • 98 urte • Martxoak 7
Juana Ostolaza • 89 urte • Martxoak 8
Francisca Pozo • 85 urte • Martxoak 5
Teodosia Iriondo • 102 urte • Martxoak 12
Txemi Etxeberria • 62 urte • Martxoak 14
Asun Ortuoste • 94 urte • Martxoak 15
Jose Luis Ramon • 70 urte • Martxoak 19
Juan Babarro • 83 urte • Martxoak 24
Juana Uranga • 74 urte • Martxoak 26
Bitxori Arizmendiarrieta • 87 urte • Martxoak 24

ETXEBERRIA
Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA
TANATORIOA



KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK
NORBANAKOEI eta KONPAINIEI zuzenduriko zerbitzuak
Erietxe zentruetan zerbitzuak
Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 / (Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56
(Sakelekoa) 635 756 295

Jaiotakoen atalean zure seme-alabaren erretratua jarri nahi baduzu, hilabeteko lehenengo astelehenerako ekarri behar duzu erretratua BARRENeko erredakziora edo *barren@elgoibarkoizarra.com* helbidera bidali. Jaiotakoen argazkia jartzeagatik 2 euro kobratzen dugu.

# IÑAKI INSAUSTI

Jubilatuen Egoitzako presidentea

**17 urte egin ditu Iñaki Insaustik Jubilatuen Egoitzako presidente, eta datorren astean lagako du kargua behin betirako. Orain dela lau urte hasi zen errelebo bila, eta badirudi, azkenean taldetxo bat badagoela zuzendaritza hartzeko prest. Datorren eguaztenean izango da Batzar Nagusia, eta bertan hartuko dute azken erabakia.**



## “Honek ez dauka atzera bueltarik. Apirilaren 21ean lagako dut presidente kargua”

**Orain dela urte batzuk ere presidente izateari lagatzekotan izan zinen, baina jarraitu egin zenuen. Datorren astean izango da, benetan, azken eguna?**

Bai, bai! Honek ez dauka atzera bueltarik. Apirilaren 21ean lagako dut presidente kargua. Hamabi egun egin ditut ospitalean, eta berriz joan behar dut, gainera, bihotzeko proba batzuk egitera. Emaztea ere ez daukat ondo, eta neuk egin behar izaten ditut etxeko enkargu guztiak. Eta 82 urte dauzkat, zer arraio! Gazteagoak badaude egoitzako zuzendaritza hartzeko moduan!

**Gogoan al daukazu noiz eta nola hartu zenuen Jubilatuen Egoitzako presidente postua?**

Jubilatu berri nengoen orduan! Jubilatuen egoitzako hiru lagun etorri zitzaizkidan, eta presidente kargua hartuko ote nuen galdetu zidaten. Ni mekanikoa nintzela esan nien, eta bulegoko lanaz ez nekiela gehiegi. Ez zela lan zaila eta ondo egingo nuela esan zidaten haiek. Bi urterako zenez, baietz esan nien.

**Bi urterako sartu ziren, baina zenbat pasatu dira ordutik?**

Hamazazpi! Orain dela lau urte hasi ginen presidente berriaren bila. Batzar Nagusian urtero atera izan dugu gaia ordutik, baina denak isil-isilik geratzen dira. Inor azaltzen ez zenez, neuk jarraitu dut, baina iritsi da planto egiteko ordua.

**Apirilaren 21ean egingo duzue azken batzarra. Egongo al da erreleborik?**

Badirudi baietz. Lau-bost laguneko taldetxo bat osatu dela dirudi. Hamabost eguneko luzapena eskatu ziguten, eta datorren astean amaitzen da epea. Hori bai, gero bazkideek onartu beharko dute zuzendaritza berria.

**Arazoak egon daitezkeela uste al duzu?**

Ez dakit! Bazkideek esan dezakete ez dutela zuzendaritza hori gustuko! Estatutuen arabera, hiru hautagai egon daitezke, eta gero Batzar Nagusiak aukeratzen du gustukoena. 1.600 lagun inguru daude izena emanda Jubilatuen Egoitzan, eta denak daude bilerara gonbidatuta. 200 inguru azaltzen dira normalean, eta beraiek erabakiko dute.

**Zein izaten da presidentearen lana?**

Ez da zaila, baina gutxienez gaztelaniaz idazten eta irakurtzen jakin egin behar da, eta denek ez dakite. Kontuak egin behar dira, kuotak kobratu, bidaiak antolatu... Nik urteroko kontu guztiak dauzkat gordeta, Egoitzako sekretarioaren laguntzaz. Bi auditoria izan ditut urte hauetan, eta Foru Aldunditik zoriondu ere egin naute, kontuak txukun eta ondo eramateagatik.

# Haur eta nerabeentzako udako eskaintza aurkeztu dute Udalak, Kirol Patronatuak eta Elgoibarko Izarrak

2 urtetik 18 urtera bitartekoentzako ekintzak prestatu dituzte

Udalak, Elgoibarko Izarrak eta Kirol Patronatuak haur eta nerabeentzako udako eskaintza bateratua aurkeztu dute. 2 eta 18 urte bitarteko haur eta gazteentzako eskaintza izango da, eta izen-emateak apirilaren 19an hasiko dira. Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaika aisialdi taldeak udaleku irekiak antolatu ditu 2tik 8 urtera arteko umeentzako. Aurten, gainera, uztaileko eskaintzaz gain, abuztuko lehen hamabostaldirako ere antolatu dituzte udaleku irekiak. Horrez gain, beste berrikuntza bat prestatu dute aurtengo udarako: goiz txoko zerbitzua. Hau da, 7:45etik 9:30era umeak zaintzeko eskaintza egin dute estreinakoz. Zerbitzu hori 30 eurokoa izango da. Informazio gehiago 943 741 626 (Naiara) telefonoan.

Kirol Patronatuak, bestalde, kirol campusa antolatu du Lehen Hezkuntzako umeentzako, hirugarren urtez jarraian. Mintxetan eta Kiroldegian egingo dituzte ekintzak, eta gaztetxoek hogei kirol desberdin praktikatzeko aukera izango dute. Informazio gehiago 943 744 415 telefonoan jaso dezakezue.

Ludotekan eta Gaztelekuan, bestalde, urte osoko programazioaz gain, ekintza eta irteera bereziak izango dira. Informazio gehiago eskuratzeko 943 748 883 edo 943 743228 telefonoetara deitu dezakezue. Udako eskaintzari buruzko informazio osatuagoa ikusteko: *www.elgoibarren.net*



## Nagusien Danborradak antolatutako garagardo jaia eguenean hasiko da



Apirilaren 22tik 25era bitartean egingo da Nagusien Danborradak antolatutako garagardo jaia, Madalako parkean, Trinitate jaietako danborrada hobetzeko dirua lortzeko asmoz. Zazpi garagardo mota dastatu ahal izango dira, eta jateko saltxitxak, txerri-ukondoak eta patata frijituak izango dira, besteak beste. Eguenean inauguratuko dute jaia, 18:30ean, eta antolatzaileek herriko kultur, kirol eta gastronomi elkarte guztien ordezkariak bertan egotea nahiko lukete. Barixakuan 19:00etatik 1:00etara egongo da irekita, eta zapatuan, berriz, 12:00etatik 01:00etara. Azken egunean, domekan, 12:00etatik 17:00etara.

**Kiribil gaur arratsaldean itzuliko da Plaza Handira, lagun berriekin**

Neguko etenaldiaren ondoren, gaur arratsaldean itzuliko da Kiribil Plaza Handira, eta ez da bakarrik egongo. Aurten ere, hainbat lagun etorriko dira barraskiloarekin batera, Elgoibarko umeekin jolas egitera. Musika eta dantza izango dira nagusi saioetan, eta haur eta gurasoek euskaraz ongi pasatzeko aukera izango dute. Saioak 17:30ean hasiko dira, eta eguraldi txarra eginez gero, saioak astebetez atzeratuko dira.

Elgoibarko Izarrak zazpigarren urtez antolatu du Kiribilka egitasmoa. 2 eta 6 urteko haurrentzako eta horien familientzako egitasmoa da, eta helburua, berriz, Elgoibarko familietan euskararen presentzia sustatzea da.



# JULEN MERINO

Concepto Createch areto futbol taldeko jokalaria

**Mailaz igotzeko sortu zuten Concepto Createch taldea, eta badirudi bide onetik doala. Bigarren postuan daude, lehen sailkatuarengandik lau puntura, eta partida bat gutxiago jokatuta. Julen Merino elgoibartarra baikor agertu da, eta denboraldi hasieran jarritako helburua lortuko dutela uste du.**

## "Lehenengo sailkatzen dena bakarrik igotzen da mailaz, bigarren geratzeak ez du ezertarako balio"




**Zer moduzko denboraldia egiten ari da Concepto Createch taldea?**
Nahiko ondo. Zazpi edo zortzi partida falta dira, eta bigarren postuan gaude, Lezoko taldearengandik lau puntura. Partida bat gutxiago jokatu dugu, beraz, hiru puntu horiek eskuratuko bagenitu, puntu bakarreko aldea izango genuke. Gainera, beraien kontra jokatu behar dugu etxean, eta irabazten badugu, lehenengo postuan jarriko gara.

**Zein helburu jarri zenuten denboraldi hasieran?**
Mailaz igotzea da gure helburua, eta horretarako prestatu zuten taldea. Nazional B mailan jokatzen dugu, –futbolean hirugarren maila izango zen–, eta Nazional A mailara igotzea da gure nahia. Presidenteak oso argi zeukan helburua hasieratik, eta fitxaketa berriak egin zituen horretarako. Denboraldia oso ondo hasi genuen, eta hamar partida irabazi genituen segidan. Gero beherakada txiki bat izan genuen, eta lehen sailkatua apur bat urrundu zitzaigun. Badirudi une txar hori pasatu dela, lehen postutik gertu gabiltzalako berriro. Lehenengo sailkatua bakarrik igotzen da mailaz, bigarren gelditzeak ez du ezertarako balio.

**Lortuko duzuela uste duzu?**
Dena gure alde dagoela dirudi, eta taldea indartsu dago. Une gogorrak pasatu ditugu, baina orain oso ondo gaude. Partidaz partida joan behar dugu, eta ikusiko da.

**Zer da taldeak daukan onena?**
Fitxaketa berriak oso onak izan dira, baina, horrez gain, jokalari guztiak maila antzekoa daukagu. Ez dago diferentzia handirik, eta ordezko jokalariek jokatzen dutenean ere ez da igartzen diferentziarik. Adin askotako jokalariak daude taldean, baina fisikoki oso ondo gaude guztiok.

**Zu zeu, noiz hasi zinen areto futbolean jokatzen?**
Orain dela bost edo sei urte hasi nintzen. Futbolean jokatzen hasi nintzen, baina argala eta txikia nintzenez, ez nuen gehiegi jokatzen. Areto futbolean jokatzeko ezaugarri hobeak dauzkat.

**Azken partidan sudurra hautsi zizuten, eta kaleratu egin zintuzten. Zer gertatu zen?**
Badirudi falta egin genuela, eta beste taldeko jokalari bat lurrean geratu zen, botata. Jokaldia jarraitu egin genuen, eta gola sartu nuen. Beste taldeko jokalariak haserretu egin ziren. Ordezko jokalariak irten ziren kantxara, eta borrokaldi bat izan genuen. Norbaitek ukabilkada bat eman zidan atzetik, eta aurrean neukan jokalaria jo nuen sudurrarekin. Ez neukan min handirik, baina partidaren ostean sudurra ukitu nuen, eta hautsita neukala konturatu nintzen. Ospitalera eraman ninduten, eta ebakuntza egiteko zain nago. Gainera kaleratu egin ninduten, eta partida bateko zigorra bete behar dut.

# Unai Narbaizak irabazi du Mauritaniaren aldeko maratoi erdia

## 120 antxitxikarik hartu zuten parte lasterketan

Unai Narbaiza Elgoibarko antxitxikariak irabazi zuen Mauritaniari laguntzeko maratoi erdia, 1:16:00 denborarekin. Haizearen eta lur irregulartasunaren ondorioz, lasterketa gogorra izan zela aitortu du Narbaizak. Proba horrek Gasteizko maratoia prestatzeko balio izan diola gaineratu zuen korrikalariak. Domekan jokatu zen lasterketa San Adrianen (Nafarroa), eta 120 lagunek osatu zuten 21,9 kilometroko ibilbidea.



## Javier San Andresek irabazi du San Prudentzio golf txapelketa Xabier Castañon eibartarrarekin batera




Javier San Andres elgoibartarrak irabazi du San Prudentzio golf txapelketa, Xabier Castañon eibartarra lagun hartuta. Joan zen zapatuan jokatu zuten txapelketa, eta 47 puntu eskuratu zituzten. Hilaren 25ean, txapelketako finala jokatuko dute, Larrabea, Izki eta Zuiako klubetako irabazleen artean.

## Iraitz Txurrukak irabazi du La Union elkarteko bazkideen ehiza xehe txapelketa

La Union elkarteko 26 bazkidek hartu zuten parte Elgoibarko ehiza xehe txapelketan, eta Iraitz Txurruka gaztea gailendu zen. Zambranan jokatu zuten, eta bost eperrekin, Aiastia-San Migel auzoko ehiztaria izan zen onena. Arkaitz Egaña izan zen bigarrena, lau leper ehizatuta, eta Luis Bellota hirugarren, beste lau piezarekin. Hiru horiek Debabarreneko txapelketan hartuko dute parte, irailean.

Beteranoen mailan, Francisco Iriondok irabazi zuen, eta jubeniletan, Joseba Aizpiri izan zen onena.



# EMAITZAK

**FUTBOLA**

Salvatierra 0 – Haundi 0 (I3. maila)

Urola 3 – Elgoibar 1 (Erreg.)

**ESKUBALOIA**

Pneumax Elg. 36 – Arrasate 27 (Kad. mut.)

Beristain Elg. 27 – Usurbil 36 (Jub. mut.)

Corazonistas Vitoria 25 – Alkorta Elg. 36 (Sen. mut.)

# AGENDA

**FUTBOLA** (Mintxetan)

Zapatua, 17

12:00 Elgoibar – Usurbil (Kad A.)

16:30 Haundi – Aretxabaleta (3. maila)

18:45 Elgoibar – Orioko (Erreg.)

Domeka, 18

11:30 Elgoibar – Reala (Inf. Txiki)

16:30 Elgoibar – Eibar (Neskak)

**ESKUBALOIA** (Kiroldegian)

Zapatua, 17

11:00 Txarriduna Elg. – Bankoa Elg. (Inf. mut.)

12:15 Ikus Elg. – Bera-Bera (Inf. nesk.)

16:00 Gurpo Eibar Elg. – Usurbil (Jub. nesk.)

18:00 Beristain Elg. – Egia (Jub. mut.)

## Chogogi mendiari buruzko emanaldia, hilaren 21ean

Morkaiko mendizale elkarteak sei bideoemanaldi antolatu ditu. Joan zen astean izan zen lehenengoa, eta datorren eguaztenean, hilaren 21ean, Chogogi mendiari buruzko ikus-entzunezkoa eskainiko du Alberto Zerainek. Emanaldiaren lehen zatian, Pakistanera iritsi eta Broad Peak mendiko kanpamentu-basera iritsi zireneko uneak erakutsiko ditu. Bigarren zatian, berriz, mendia igotzeko beste aukera baten zain dagoenarentzat animoari eusteak daukan garrantzia azalduko du. Ekitaldia 21:30ean izango da, musika eskolako auditorioan.

## LANA

### ESKAERA

• Neska lanerako prest: garbiketa lanak egiteko edo umeak eta nagusiak zaintzeko prest.
☎ 613 786 976
• Neska lanerako prest: garbiketa lanak egiteko edo umeak eta nagusiak zaintzeko prest.
☎ 646 235 195 / 943 531 903
• Emakumea lanerako prest. Umeak edo nagudiak zaintzeko edo beste edozer lan egiteko gertu.
☎ 649 808 071
• Mutila nagusiak zaintzeko edo beste edozein lan egiteko prest. ☎ 649 808 071
• Mutila nagusiak zaintzeko edo beste edozein lan egiteko prest. ☎ 648 143 804
• Gizona zerbitzari, garbitzaile edo sukaldari laguntzaile lanetarako prest. ☎ 686 077 316
• Neska arratsaldez edo gauez lan egiteko prest.
☎ 646 821 678
• Emakumea lan bila. Garbiketa lanak egiteko edo pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko. Edozein ordutegi. ☎ 638 344 377
• Umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko eskaintzen da emakume bat.
☎ 660 511 781
• Neska gaztea eskaintzen da adineko jendea zaintzeko. Interna moduan aritzeko prest. Esperientziaduna eta erreferentzia onekoa.
☎ 677 155 611 / 943 030 828
• Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko. Interna nahiz orduka. ☎ 662 247 584
• Emakumea lan bila. Helduak eta haurrak zaintzeko edo elkarte eta tabernetan garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 618 163 061
• Gizonezkoa edozein lan egiteko prest: elektrizista lanak, peoi...☎ 606 612 834
• Neska lan bila. Umeak edo nagusiak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko eta sukaladari laguntzaile aritzeko.
☎ 680 516 240 / 943 531 514

## ETXEBIZITZAK ETA LOKALAK

### ALOKAIRUA ETA SALMENTA

• Lokala traspasatzen da Pedro Muguruza etorbidean. Jatetxea etxebizitzarekin. ☎ 635 751 642
• Conilen (Cadiz) apartamentu zoragarriak alokatzen dira. Garajeekin.
☎ 653 733 457
• Pisua salgai Pedro Muguruza etorbidean. 68m2, garajea eta ganbara.
☎ 678 883 051/943 742 808 (gauez)
• Etxea konpartitzeko pertsona behar da.
☎ 648 210 852
• Etxea alokatzen da Santa Ana kalean. 3 logela. 525 euro (gastuak barne).
☎ 629 314 242
• Basarte auzoan pisua salgai, garajearekin. 77 metro koadro. Eguzkitsua. Egoera onean. Oso aukera ona.
☎ 647 372 033
• Elgoibarren pisua salgai. Erdigunean, altzariekin, berritua, eguzkitsua eta igogailuarekin. 150.000 euro.
☎ 686 344 252
• Alokairuko pisu baten bila nabil Elgoibarren edo Eibarren. ☎ 651 663 342

## GARAJEAK ETA MOTORRA

• Honda CBR 600 motoa salgai. 1998koa, 46.000 kilometro. 2.400 euro. ☎ 697 575 645
• Opel Astra 2.0 DTI Confort autoa salgai. 1999koa. 110.000 kilometro, hiru ate, llantak, aleroia, aire egokitua, CD kargadorea. ☎ 635 208 887
• Garaje itxia alokatzen dut Jausoron, udaletxetik gertu. ☎ 628 764 686
• Lambretta bat saltzen da, 1969.urtekoa. 150 Li. Egoera onean. ☎ 654 949 123 / 943 531 771

## BESTELAKOAK

• Edesa L-956T garbigailua salgai. 6 kilogramokoa, Practica modeloa. Berria. 100 euro.
☎ 679 767 589
• Alpino arrazako akerrak eta Espainiar arrazako moxalak salgai.
☎ 650 091 069
• Betaurrekoak aurkitu ditut Andikanorako bidean. Ezkontza eraztun bat ere aurkitu nuen orain dela hilabete inguru. ☎ 943 741 860



ESKERTZA

# ANDRES OSORO AGIRREGOMEZKORTA

2010eko apirilaren 14an hil zen, 75 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





I. URTEURRENA

# JESUS IBABE AMUTXASTEGI

2009ko apirilaren 12an hil zen, 80 urte zituela .

*"Denborak samina arintzen omen du,*
*baina zure oroitzapen goxoa ezerk ez du lausotuko."*

Etxekoak



# IBON IZAGIRRE RODRIGUEZ

*haurra*

*Haren gurasoen lagunek bat egiten dugu haien nahigabearekin*
*eta gure elkartasuna adierazi nahi diegu saminezko une hauetan.*





• Zorionak, **Olatz**, gure etxeko pitxilorea. Zapatuan urtebete! Patxo potolo bat, familiako guztien partez.



• Zorionak, **Unax**, datorren eguaztenean 6 urte potolo egingo dituzulako. Maddi, Ane eta familiakoen partez.



• Zorionak, **Eider**, martitzenean 8 urte egingo dituzulako. Ondo pasa, eta muxu asko denon partez.



• Zorionak, **Maialen,** hilaren 13an 4 urte egin zenituelako. Muxu handi bat gurasoen, eta anaia Markelen partez.



• Zorionak, **Aitana**! Aiton-amona, osaba-izeba eta Ikerren partez.



• Zorionak, **Irati,** hilaren 10ean 8 urte egin zenituelako. Familiako guztien partez.



• Zorionak, **Ane,** domekan 9 urte egingo dituzulako. Ondo pasa! Etxekoen eta Lolitaren partez.



• Zorionak, **Markel,** datorren domekan 5 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiakoen partez.



• Zorionak, **Jon,** bihar 9 urte egingo dituzulako, eta maiatzaren 9an jaunartzea egingo duzulako. Anaren partez, muxu bat.



• Zorionak, **Jokin,** hilaren 13an 10 urte egingo dituzulako. Anaren partez, muxu handi bat.



• Zorionak, **aitxitxe**, zure biloba Oierren partez.



• Zorionak, **Aner Telleria**, hilaren 15ean 8 urte egingo dituzulako. Familiakoen eta bereziki, Aialaren partez.



• Zorionak, **Lorena,** 4 urte egingo dituzulako. Familiakoen, eta bereziki, lehengusu Daviden partez.



• Zorionak, **Juli,** astelehenean zure eguna izan zelako. Familiakoen partez.

**Erretratu bakarreko agurra: 2 euro. Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukoitza: 5 euro. Handia: 6 euro.** Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguazten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu. BARRENeko bulegora 12:00ak baino lehen, edo *barren@elgoibarkoizarra.com* e-postara bidali.

---


Apirilak 17 zapatua,

GAZTE INFORMAZIOAREN EUROPAKO EGUNA

Elgoibarko gaztelekuak eta Gazte Informazio Guneak, TONBOLA berezia prestatu dute.

Elgoibarko Madalako parkean 17:00etatik 20:00ak arte.

SARIAK:

EUSKAL HERRIKO KIROLARI, ABESLARI, IDAZLE, AURKEZLE ETA ABARREN OPARIAK EGONGO DIRA.

Musika ere egongo da!

ANIMATU ETA PARTE HARTU!!

gazte

**OKINDEGIA**

18 domeka IBARRENEA

**FARMAZIAK**

| | 24 ORDUZ |
|---|---|
| 16 | Yudego |
| 17 | Zabaleta |
| | Goizez: Garitaonandia |
| 18 | Zabaleta |
| 19 | Etxeberria *(Errosario)* |
| 20 | Ibañez |
| 21 | Garitaonandia |
| 22 | Etxeberria *(Santa Ana)* |
| 23 | Fernandez |

Ibañez
Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 751 638

Fernandez
Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 756 142

Zabaleta
Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 751 384

**INFORMAZIO GEHIAGO:**




Egin klik
*www.elgoiBARREN.net*

## 16 barixakua

### Aisialdia
17:00 Kiribilka
Elgoibarko Izarrak antolatuta, haurrentzako eta gurasoentzako egitasmoa. Plaza Handian.

### Musika
21:30 Zartzuela
Masa Coral del Ensanche de Bilbao taldeak *Antología de la zarzuela* obra eskainiko du, Herriko Antzokian.

## 17 zapatua

### Jardunaldiak
11:00 Lanbide Heziketa eta Ingeniaritza
Elgoibarko prestakuntza eskaintzari buruzko jardunaldiak izango dira, Meka, Udala eta IMHk antolatuta. Kultur Etxeko sotoan.

### Aisialdia
11:30 Udaberri festa
Atxutxiamaikak antolatuta, Udaberri festa, Plaza Handian.

### Tailerra
16:00 Reflexologia
Manu Alvaradok reflexologia, hipnosia eta Bach loreei buruzko tailerra eskainiko du Aubixan.

### Jaia
20:30 Festa feminista
Elgoibarko Emakumeen Asanbladak antolatuta, festa feminista izango da, Gaztetxean. Antzerkia, monologoak, afariak eta musika saioak izango dira.

### Jaia
17:00 Tonbola
Gazte informazioaren Europako eguna dela-eta, tonbola berezia antolatu dute Gaztelekuak eta Gazte Informazio Guneak. Parte hartzaile guztientzako sariak izango dira. Madalako parkean.

## 18 domeka

### Irteera
10:00 Kukuarrira irteera
Ikastolako umeen gurasoek antolatuta, Kukuarri mendira joango dira. Irteera, Ikastolatik.

### Musika
12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua
Udal Musika Bandak kontzertua eskainilko du, Herriko Antzokian. Goizean, kalejira egingo dute, Iruñeko gaita joleekin.

**GAZTELEKUKO EKINTZAK**

ZAPATU HONETAN, APIRILAK 17, GAZTE INFORMAZIOAREN EUROPAKO EGUNA DA. MADALA PARKEAN EKITALDI BEREZI BAT EGINGO DUGU ETA TONBOLA BAT ERE EGONGO DA.
ANIMATU ETA PASA ZAITEZ BERTATIK, 17:00ETATIK 20:00ETARA.



**LUDOTEKAKO EKINTZAK**

BARIXAKUA 16
Kanpo jolasak 17:30

ASTELEHENA 19
Wii: *Rayman raving rabbids 2* 17:30

MARTITZENA 20
Eskulanak 17:30

EGUAZTENA 21
Ekintza: *Twister* 17:30

EGUENA 22
Talde jolasak 17:30




**«An education»**
17, zapatua: 19:00/22:15
18, domeka: 19:00
19, astelehena: 21:30

Erresuma Batua, 2009. Zuz.: Lone Scherfig. Akt.: Peter Sarsgaard, Carey Mulligan, Alfred Molina. 95 min. 1961. urtea. 16 urteko neska bizkor eta distiratsu bat Londresko kanpoaldean bizi da. 35 urteko gidari bat ezagutuko du, eta kolokan jarriko dira haren mundua eta oreka. Gizonak luxuzko afari eta bidaiekin limurtuko du. Neskak ikasketak utziko ditu, baina izango duen engainuak emango dio benetako heziketa.

## 22 eguena

### Ate irekiak

8:30 Meka bisitatzeko eguna

Egun osoz Albitxuriko Meka ikastetxea bisitatzeko aukera izango da. Hitzaldiak ere izango dira.

### Jaia

18:30 Garagardo jaia

Trinitateetako Danborradaren Batzordeak antolatuta, garagardo jaia inauguratuko dute. Madalako parkean izango da, domekara arte.

## Gure gomendioa

**'Antologia de la zarzuela'**

Gaur gauean, Herriko Antzokian

Masa Coral del Ensanche de Bilbao taldeak *Antologia de la zarzuela* obra taularatuko du gaur gauean, Herriko Antzokian. 21:30ean hasiko da emanaldia. Sarrerak lehiatilan bertan erosi daitezke, eta bestela, *www.kutxa.es* webgunean. Bilboko taldea aurrez ere izan da Elgoibarren. *El Caserio* lana taularatu zuten, eta Herriko Antzokia goraino bete zen.






**«Cazadores de dragones»**
18, domeka: 16:30

**«I'm not there»**
22, eguena: 21:30

Estatu Batuak eta Alemania, 2007. Zuzendaria: Todd Haynes.
Aktoreak: Heath Ledger, Christian Bale, Richard Gere, Cate Blanchett, Julianne Moore.

Bob Dylan abeslari amerikar ezagunaren bizitza kontatzen du filmak. Sei aktorek egingo dute abeslariaren papera, eta bizitza publika zein pribatua islatuko du filmak.

## Erretratu zaharra



**1931**

Aste honetako erretratu zaharra Maite Vallejok ekarri du Barrenera. 1931. urteko argazkia da. Maitek ez daki non aterata dagoen, baina hemen inguruko mendiren bateko erromeriaren bateko irudia izango dela uste du. Gogora ditzagun argazkian ageri diren lagunak. **Ezkerretik eskumara:** Eugeni (Olaso) (✝), ezezaguna, Maritxu Kortaberria (✝), Carlos Uncilla (✝), Angeles Azkue, Federico Azkue (✝), Miguel Sanchez (✝), Maritxu Egaña. **Bigarren ilaran:** Bitxori (Narru) (✝), Manolita Rodriguez, Miren Vallejo, Alejandra Aizpiri (✝), Juanita Arrieta, Manuel Rodriguez (Porru) (✝) (Parrokian *Hil da Jesus* abesten zuena), Prudencia Sanchez (✝), Crucita Arriaga (✝), Maria Barrutia (✝), Maria Villar (✝), Julian Azkue (✝). **Etzanda**, Conchita eta Feliciana Azkue.



GOIMEK

Doitasun handiko mekanizazioan puntakoa den kooperatiba gazte batek honako hauek behar ditu:

MONDRAGON

## ZENBAKIZKO KONTROLDUN FRESATZEKO MAKINARAKO LANGILE BAT (21/10 Erref.)

**LANPOSTUAREN PROFILA:** Fresatzeko makina handiak (zubiak, zutabe mugikorreko makinak edo mandrinatzeko makinak) erabiltzen —bai arbastatze-eragiketetan, bai akaberakoetan— esperientzia duen pertsona bat behar dugu.

**ESKATZEN DUGU:** Goi-mailako heziketa-zikloko trebakuntza, antzeko lanposturen batean eskarmentua izatea, CNC HEIDENHAIN erabiltzen jakitea, euskara menderatzea, ekimena taldean lan egiteko gaitasuna izatea eta egiaztapen-tresnak (alexometroak, mikrometroak...) erabiltzen jakitea.

**ESKAINTZEN DA:** Lanpostu finko batean berehala hastea eta esperientziaren araberako ordainsaria.

## DOIKUNTZA-EKIPORAKO LANGILE BAT (Ref. 22/10)

**LANPOSTUAREN PROFILA:** **Doikuntza mekanikoan** eskarmentua duen pertsona bat behar dugu. Errasketatze-lanak eta aitzinamendu-noranzkoaren kontrako fresatzeko makinako fresatzea menderatu behar ditu, doikuntza-lanak egiteko, zulatzeko makina erradiala erabiltzeko...

**ESKATZEN DUGU:** Ezinbestekoa da arlo hauen gaineko ezagutza eta egiaztatutako esperientzia izatea: Goi-mailako heziketa-zikloa edo egiaztatutako esperientzia lanpostu horretan, planoak interpretatzea, garabiak erabiltzea eta doikuntza zehatza. Turcite itsasteko prozesua ezagutzea eta euskara balioetsiko da.

**ESKAINTZEN DA:** Lanpostu finkoan berehala hastea eta esperientziaren araberako ordainsaria.

LKS

30 eguneko epean, aurrez aukeratutakoei bakarrik erantzungo zaie. www.lks.es

Emandako datuak dagokion bezala isilekoak izango dira, abenduaren 13ko 15/1999 Legeak, hots, Datu Pertsonalak Babesteko Legeak ezartzen dituen irizpideei jarraiki.

MONDRAGON

*Interesa izanez gero, bidali curriculuma: seleccion@lks.es; edo 89 posta kutxa, 20240 Ordizia, Gipuzkoa, kasu bakoitzean dagokion erreferentzia zehaztuz.*

# ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

**Ordenagailu bidez** teoria ikasteko gela berria!








**ORDUTEGIA**

10:00etatik-12:30era
15:00etatik-20:30era

**LEKUALDAKETA**

**San Frantzisko, 52 behea**

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

- *Euskarazko eta gaztelerazko klaseak*
- *Credikutxarekin ordaintzeko erraztasunak*

# OSASUN GIDA

## MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

*Kemen Belardenda. Naturopata, Iridiologoa eta Homeopata.*
(Pisu kontrola ,"Dieta erraza" mehetzeko tratamendua... Naturopatia, Bach loreak, P.N.L, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak). Quantum scio (estres kontrola) tarot terapeutikoa eta familia konstelazioa (banaka)
San Bartolome, 29 - Tel: 943 744 031
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

*Sanatana Dharma Yoga Elkartea*
Urasandi, 9
Tel: 943 748 593 (Idoia) - 685 722 131
Astearte eta ostegunetan:
10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/
18-19:30/20-21:30
*Mendaro:* Astelehen eta asteazkenetan:
10-11:30/15-16:30
Astearte eta ostegunetan: 20:00-21:30

*Pakene Ongizate intregraleko zentru berria*
(Azterketa biologikoa eta osteopatikoa, Naturopatia, Homeopatia, Fitoterapia Txinatarra, Nutrizio ortomolekularra, Elikagaien jasanezintasunak, Bach-en loreak...). Tel: 943 254 505

## MASAJISTAK

*Victoria Iraegi*
(Esku- terapiak: kiropraxia, dranatzaile linfatikoa, osteopatia, kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea). San Frantzisko kalea, 40 (atzealdea) - Tel.: 943 740 770
Astelehenetik Ostiralera : 8:00 / 14:00

## PODOLOGOAK

*Oinberri*
Errosario kalea, 25
Tel: 943 741 795
Astelehenetik ostiralera:
9:00-13:30 / 15:00-19:30

*Iñigo Arrillaga Yudego*
- Hanken afekzioen terapia.
- Neurrira egindako plantilak.
- Hanka diabetikoen zainketa.
- Ordenagailuaren bidezko hankaren azterketa.

San Frantzisko kalea, 20 behea
Tel: 943 741 645
Ordutegia: 9:30-13:30 /15:30-19:30

## FISIOTERAPIA

*Ainhoa Fisioterapia*
Jausoro, 6 behea.
Goiz eta arratsaldez.
Tel.: 943 531 953
669 565 745

*Andoni Schmidt Larrañaga*
*Etxerako Fisioterapia*
Jende nagusia, neurologia, errehabilitazio orokorra, masajeak. Ekipo portatila. Ordua eskatu.
Tel.: 689 926 016

## ORTOPEDIAK

*Itziar Sarasketa*
San Frantzisko, 12
Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00
Tel: 943 74 35 62

## OPTIKAK

*Ikus optiko-optometrista*
San Bartolome, 10
Egunero: 9:30-13:00
16:30-20:00
Tel: 943 743 734

*Uzuri*
(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)
San Frantzisko, 21
Egunero: 9:30-13:00
16:30-20:00
Tel: 943 740 359

## HORTZ KLINIKAK

*Irale*
Errosario Kalea, 7 behea (Elgoibar)
Tel: 943 743 679
Zeharkalea, 8 behea (Ermua)
Tel: 943 177 134
*irale@irale.com - www.irale.com*

*Leku eder*
Elena Herrero Lobo.
Aita Agirre enparantza, 5 behea.
Tel: 943 530 053 - *lekueder@infomed.es*

*Beitia Arriola*
- Odontologia orokorra eta ortodontzia
- Haurren Hortzagin programa
- Panoramikak eta telerradiografiak

Trenbide kalea 21, behea
Tel: 943 531 869



